


Año 2024. urtea

N.º 36. zk.



TRABAJOS DE ARQUEOLOGÍA NAVARRA

SEPARATA

**El Raso (Lezaun). Aldi baterako
erromatar kanpamentu
militarrak (*castra aestiva*).
2024ko ekinaldia**

Antxoka Martínez Velasco

Sumario / Aurkibidea

Trabajos de Arqueología Navarra

Año 2024. urtea - N.º 36. zk.

ARTÍCULOS / ARTIKULUAK

- Manufactura, tecnología y uso de la industria ósea del yacimiento de la cueva de Zatoya (Abaurrea Alta, Navarra)**
María Amparo Laborda Martínez 13
-
- El túmulo B de Llanos de Escudero II (Bardenas Reales de Navarra) y los enterramientos en cista en el Alto Valle del Ebro**
Jesús Sesma Sesma, María Luisa García García, Sonia Díaz Navarro,
Ana Mercedes Herrero Corral, David Álvarez Polanco, Sara Fernández Recio,
Héctor Arcusa Magallón, Manuel Rojo Guerra 59
-
- La fosa sepulcral de La Saga (Cáseda, Navarra): análisis de la composición poblacional y alteraciones postdeposicionales**
Sonia Díaz Navarro, Ana Maria Silva, Rebeca García González, Jesús García Gazolaz,
Jesús Sesma Sesma, Manuel Ángel Rojo Guerra 115
-
- El complejo termal de El Villar de Ablitas**
Juan José Bienes Calvo, Oscar Sola Torres 143
-
- En torno al poblamiento antiguo y medieval a orillas del Ebro: el yacimiento arqueológico de Resa (Andosilla, Navarra)**
Josu Narbarte, Manex Arrastoa Mendizabal, Ekhine García-García,
Oihane Mendizabal Sandonís, Maite Iris García-Collado, Sandra Jiménez López,
Aitor Pescador Medrano, Lourdes Herrasti Erlogorri, Juantxo Agirre Mauleón 163
-
- Exhumación de una fosa común de la Guerra de la Independencia en El Carrascal (Unzué, Navarra)**
Raquel Unanua, Lourdes Herrasti, Igone Etxeberria, Francisco Etxeberria 195
-

Sumario / Aurkibidea

NOTICIAS / BERRIAK

Intervención arqueológica en la cueva de Abauntz (Arraitz-Orkin). Resumen de la campaña 2024 y nuevas dataciones

Andion Arteaga-Brieba, Mikel Arlegi, Carmen Alonso-Llamazares, Martin Arriolabengoa, Aitor Burguet-Coca, Miriam Cubas, Felipe del Cojo, Mónica Fernández-García, Asier Gómez-Olivencia, Arturo Hermoso de Mendoza, Lucía López-Polín, Juan Ignacio Morales, Andreu Ollé, Adrián Pablos, Ana Pantoja-Pérez, Amaia Rico, Joseba Rios-Garaizar, Manuel Rodríguez-Almagro, Antonio Rodríguez-Hidalgo, Nohemi Sala, Urko Santamaría-Díaz, Miguel Soares-Remiseiro, Cristina Val-Peón, Mónica Villalba de Alvarado

237

Koskobilo II (Olazti), intervenciones arqueológicas de 2024

Daniel Ruiz-Gonzalez, Olaia Granizo Candelas, Blanca Ochoa Fraile, Mattin Aiestaran, Juantxo Agirre Mauleon

247

Sondeos arqueológicos en el castro de la Edad del Hierro de Las Vistillas (Lerín)

Nerea Soto Úriz, Iosu Barragán Cidriain

259

Alto de la Cruz: campañas de prospección y excavación arqueológicas 2023-2024 (Cortes, Navarra)

Glòria Munilla Cabrillana, Marta Gómara Miramón, Óscar Bonilla Santander, Miriam Pérez Aranda, Ángel Santos Horneros, Andrés Eduardo Burbano Valdés, Marta Mateu Sagués, Alicia María Izquierdo, María Cruz Pérez Omeñaca, María de los Santos Gutiérrez Castellón, Beñat Lorenz Bergara, Alessandro Mateos Sierra

269

Poblado fortificado de San Isidro/Alto del Corral (Dicastillo). Actuación preventiva de 2024

Antxoka Martínez Velasco

283

Intervención arqueológica y de restauración en el poblado de El Castillar de Mendavia. Campañas 2020-2024

Leyre Arróniz Pamplona, Clara Calvo Hernández, Héctor J. Fonseca de la Torre, Xavier Bayer Rodríguez, Daniel Pérez Legido

289

El Raso (Lezaun). Aldi baterako erromatar kanpamentu militarrek (*castra aestiva*). 2024ko ekinaldia

Antxoka Martínez Velasco

295

Un proyecto de investigación en el yacimiento arqueológico de *Andelo* (Muruzábal de Andión). Sondeos estratigráficos de 2024

Iñigo Portela Santamaría

303

Intervención arqueológica en Artzi (Artzibar/Valle de Arce): resumen de la campaña de 2024

Oihane Mendizabal Sardonís, Leire Arana Ojanguren, Javier Uriz Monaut, Eder Martínez de Miguel, Suberri Matelo Mitxelena

313

Sumario / Aurkibidea

Picordero I: campaña de excavaciones arqueológicas del año 2024 (Cascante, Navarra) Marta Gómara Miramón, Óscar Bonilla Santander, Ángel Santos Horneros, Miriam Pérez Aranda, Alicia María Izquierdo, Josu Aranbarri Erkiaga, Javier Muruzábal Cal, Beñat Lorenz Bergara, María de los Santos Gutiérrez Castellón, Alessandro Mateos Sierra	321
Excavación arqueológica El Plantío de Corella. Campaña 2024 Juan José Bienes Calvo, Oscar Sola Torres	329
Excavación en el castillo de Valtierra. 8.ª campaña. 2024 Juan José Bienes Calvo, Oscar Sola Torres, Jesús Lorenzo Jiménez	339
Excavaciones arqueológicas en el castillo de Rocaforte (Rocaforte) Iosu Barragán Cidriain	349
VI Campaña de intervención y puesta en valor del castillo de Larraga Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona López	359
Monasterio de San Juan de Jerusalén de Bargota (Mañeru). Campañas de 2021 a 2024 Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz	367
Cerco de Artajona. Actuaciones en el frente norte en 2024 Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz	375
Nekazaritza-paisaien geoarkeologia: Erdi Aroko eta Aro Modernoko terraza-sistema bat Ziga herrian (Baztan, Nafarroa) Josu Narbarte, Mattin Aiestaran, Oihane Mendizabal Sandonís, Eneko Iriarte	381
Pueblo Viejo de Caparros, campaña de 2024 Nicolás Zuazúa Wegener, Carlos Zuza Astiz	391
Nuevas dataciones para la fundación de la ermita de la Virgen del Pero, Peralta / Azkoien Nerea Soto Úriz, Rosario Mateo Pérez	397
IV Campaña arqueologica. Ermita de San Cristóbal-Ezkaba Iñaki Sagredo Garde, Jon Sagredo Alonso, Julen Azkona López	405
Los caminos de comunicación y servicio en la Real Fábrica de Eugi: campaña 2024 Francisco Labé Valenzuela, Ana Carmen Sánchez Delgado	413
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	423

El Raso (Lezaun). Aldi baterako erromatar kanpamentu militarrek (*castra aestiva*). 2024ko ekinaldia

El Raso (Lezaun). Campamentos militares romanos de campaña (*castra aestiva*). Campaña de 2024

El Raso (Lezaun). Temporary roman camps (*castra aestiva*). 2024 campaign

Antxoka Martínez Velasco
Aranzadi Zientzia Elkartea
amartinez@aranzadi.eus
<https://orcid.org/0000-0003-2248-3763>

DOI: <https://doi.org/10.35462/tan36.13>

LABURPENA

2024. urtean kata bidezko miaketa arkeologikoa egin da El Raso deitzen den inguruan, Lezaun herrian. Lortutako emaitzei esker baieztatu ahal izan da bi erromatar kanpamentu militarren aurrean gaudela, aldi baterakoak biak eta, beraz, *castra aestiva* motakoak. Sertoriar guden (80-72 g.a.) testuinguruan koka daitezke, hala ere, elkarren ondoan daude eta ezaugarri desberdinak dituzte, horregatik, hasierako hipotesia da bi momentu desberdinetan emandako mugimendu taktikoei erantzuten dietela.

Gako hitzak: erromatar kanpamentuak; Lezaun; castra aestiva; Sertoriar gudak.

RESUMEN

En el año 2024 se llevó a cabo una prospección arqueológica con catas en el paraje denominado El Raso, en Lezaun. A partir de los resultados obtenidos se ha podido confirmar que nos hallamos ante dos campamentos militares romanos, ambos de campaña, por tanto, *castra aestiva*. Pueden encuadrarse en el contexto de las guerras Sertorianas, aún así, se hallan muy próximos y poseen características muy distintas, por ello, la hipótesis inicial es que ambos responden a movimientos tácticos que se producen en momentos diferentes.

Palabras clave: campamentos romanos; Lezaun; castra aestiva; guerras Sertorianas.

ABSTRACT

In 2024, an archaeological survey was carried out in the area called El Raso, in Lezaun. The results obtained, confirmed that we are dealing with two Roman military camps, both campaign camps, therefore, *castra aestiva*. They can be placed in the context of the Sertorian wars, even so, they are very close and have very different characteristics, therefore, the initial hypothesis is that both respond to tactical movements that occur at different times.

Keywords: roman camps; Lezaun; castra aestiva; Sertorian wars.

1. SARRERA. 2. 2024KO EKINALDIAREN LABURPENA. 3. ONDORIOAK. 4. BIBLIOGRAFIA.

1. SARRERA


Lezaun herria kokatzen da Urbasa eta Andia mendilerroen arteko pasabidean, hegoaldeko aldean. El Raso deitzen den ingurunea herri-gunetik 500 metrotara aurkitzen da, ipar-mendebaldera. Magal leunak aurkitzen dira bertan, hainbat errekastorekin tartekatuak, eta horrek ematen dio mendi-bizkar erliebea inguruneari (1. irudia). Horietako batean kokatzen dira erromatar kanpamentuak, 850 eta 1100 m arteko altueran (2. irudia).

2024. urtean lau kata eta ebakidura bat egin dira, horietako hiru A kanpamentuan, laugarren kata bat eta ebakidura bat defentsa lerroan, berriz, B kanpamentuan. Jarduera horrek erantzun zion Lezaungo udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari egindako enkarguari. Hala ere, lanaren jatorria hiru urte atzerago bilatu behar da, 2021ean; urte hartan ausazko bi aurkikuntza eman ziren, kaligetarako bi tatxeta (*clavi caligarii*), erromatar arkeologia militarren testuinguruan, fosil-gida diren material esanguratsuak. Horietatik abiatuta,



1. irudia. El Raso. Ikuspegi orokorra (arg. Javier Gaspar Zugasti).

azaleko miaketa egin zen, baita berrikusi ere ortoargazki eta Lidar serie desberdinak. Eta horrela, ortoargazki serie bakarrean bazen ere, identifikatu zen A kanpamentua. Hasierako informazio hori oinarri hartuta, azaleko miaketa ekinaldi baterako baimena eskatu zen 2022an, mota horretako aztarnategiak ikeritzeko ohiko metodologia estandarra erabilia, hau da, magnetikoa. Administrazioak eskaerari uko egin zion baina, trukean, kata bat egiteko



2. irudia. El Raso A eta B. Kokapenak eta oinplantak (Nafarroako Gobernuua, 1:5000; AMV moldatua).

aukera eman zuen, eta hala egin ere. Besteak beste, bi tatxeta eta Turiaso txanpon-etxeko as bat (D.C.P. 1. emisioa, B2 mota. g. a. II. mendaren bukaera) topatu ziren bertan eta, hala, argi baieztatu ahal izan zen egituraren izaera kanpamentala erromatarra (Martínez, 2023).

2. 2024KO EKINALDIAREN LABURPENA

Tokiaren ikerketan sakontzeko ekinaldi berria planteatu zen 2024an. Aurrekariak kontuan hartuta, jarduera eremua zabaldu zen eta egitura berria sartu egitasmoan. A kanpamentutik iparraldera, hurbil, terraza zabala dago (2. irudia). Ez du funtziorik betetzen ekonomia tradizionalan, baina dituen ezau-garrien arabera defentsa-sistemekin homolo-

gatu daiteke eta horregatik interesgarritzat hartu zen hura aztertzea egiaztatzeko beste kanpamentu bat izan zitekeen edo ez. Ikerketa gauzatzeko, ohiko metodologia estandarri gehitu zitzaion katak egitea, baita ebakidura bat terrazan ere. Aurrekoan bezala, administrazioak ez zuen eman baimena mota horretako aztarnategietan oinarritzkoa den miaketa magnetikoa egiteko.

Hiru kata egin ziren A kanpamentuan. Bitan egiaztatu zen, berriro ere, sekuentzia estratigrafikorik ez dagoela azaleraren gehiengan, ezta okupazio mailarik, aldi baterako erromatar kanpamentuetan ohikoa izaten den bezala, baina kata batean tatxeta bat topatu zen, berriro ere, ohikoa den bezala (3. irudia). Hirugarren kata bat egin zen kanpamentuaren



3. irudia. El Raso A. Erromatar kaligatarako tatxeta (*clavus caligarii*). AMV 2024.

iparraldera, tumulu itxurako egitura batean. Horretan, harlauzez egokitutako zoru moduko bat topatu zen, baita historiaurre berantiarreko eskuz egindako zeramika zati batzuk ere.

B kanpamentuan kata bat egin zen esparruaren barruan; bertan, ez zen egiturarik ezta okupazio mailarik aurkitu, baina bai nauheim motako burdinezko fibula bat (4. irudia), baita mota bereko bigarren fibula baten zatia (ahoa eta arkuaren hasiera), burdinez eginda ere. Ebakidura, berriz, terrazan egin zen, ekialdeko muturrean eta bertan dagoen bidexka baten ondoan. Bertan, egiaztatu ahal izan zen terraza artifiziala zela, horma bat izan zuela kanpora begira hari eusteko, lurrez eginda dagoela eta ondo egituratuta dagoela, baita bestelako egokitzapenak ere, hau da, erromatar ejerzituak ekinaldi militar baten zehar egiten dituen ohiko defentsa lerroen ezaugarriak dituela (*agger*).

3. ONDORIOAK

Egindako jardueren emaitzek baieztatu ahal izan dute El Raso ingurunean bi aldi baterako bi erromatar kanpamentu militar daudela. A kanpamentuaren defentsa lerroaren kontserbazioa azalean irregularra da, baina ortoargazkian ikusten dena kontuan hartuta, esan daiteke 13-14 hektareatako azalera duela, oinplantaren diseinuak oinarri errektangularrak duela, zenbait zuzenketekin magalaren erliebera egokitzeko, eta lurrez eta bertoko harriz egindako defentsa lerroa duela. B kanpamentua, aldiz, defentsa lerroa (*agger*) terraza zabal eta altu batetan oinarritzen da. Atal batzuetan galduta dago edo ez da antzematen, horregatik ez dago zehazterik une honetan betetzen zuen azalera. Materialei dagokienez, ohikoenak eta, hortaz, esanguratsuenak diren kaligetarako tatxetak topatu dira, baina adierazgarriak dira



4. irudia. El Raso B. Nauheim motako fibula, burdinezkoa. AMV 2024.

ere nauheim motako fibulak, hain juxtu ere, burdinez egindakoak espresuki lotzen direlako mundu militarrekin eta guda testuinguruetan askotan ematen zen lehengai batzuen eska-siarekin.

Kronologiari eta funtzioari dagokionez, ditugun datuak mugatuak direla, oraingo hipotesia da g.a. I. mendearen hasieran edo lehenengo erdialdean egon behar direla, Sertoriar guden testuinguruan, kontuan hartuta nauheim fibulak eta Turiasuko asaren zirkulazio aldia batetik, baina baita bestetik kanpamentu bien ezaugarriak eta kokapena ere.

Erantzunak baino, galderak daude, ohikoa izaten denez aztarnategi batenganako hurbilketa egiten denean. Guda testuinguruan altxatutako kanpamentuak dira, izan ere, A kanpamentuak tropa mugimendu oso handia erakusten du, estimazio batzuen arabera, 13-14 hektareatako azalerak legio oso bat har lezake eta. Kanpamentu bien arteko erlazioa zein den, edo dagoen, ez dago zehazterik orain, hala ere, elkarrengandik oso hurbil daude eta ezaugarri desberdinak dituzte, horregatik, pentsa daiteke momentu desberdinetan egindako bi mugimendu taktikoei erantzuten dietela.

Datuek ez dute ahalbidetzen mundu indigenaren aurkako oldarraldi zuzenaren ideia. Ingurune hurbilenean, kokapenek ikusiz kontrolatzen duten eremuan, ez dago Burdin Aroko herri harresiturik. Eta haratago geratzen direnak, Errezumendi (Riezu) bezalakoak, ez dute erasoaren zantzurik (Sagredo, 2021).

Seguruenik, El Rasoko kanpamentuak lotu behar dira Urbasa eta Andia mendilerroen kontrolarekin; baliabide ugari daude bertan, baita bide eta ibilbide ere, guda testuinguru batean estrategikoak izan daitezkeenak. Zentzu horretan, oso adierazgarria da kokapen horretatik hurbil Allideko erromatar postu militarra dagoela (Martínez, 2009), berandua-gokoa, baina indartzen duena ingurunearen eta bideen gaineko kontrolaren beharra. Erromatar militarrekin ere lotu beharko lirateke Andiako mendilerroan zehar, iparralderago bereziki, izandako zenbait aurkikuntza, batez ere tatxetak (Elkartea, 2017).

4. BIBLIOGRAFIA

Elkartea, E. (2017). Prospección en las sierras de Urbasa, Andia y Aralar. Campaña 2015. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 28, 41-50.

Martínez Velasco, A. (2009). El puesto militar romano de Allide (Ibircu, Navarra). Prospección 2008. *Kobie Paleoantropología*, 28, 233-246.

Martínez Velasco, A. (2023). El Raso (Lezaun. Nafarroa). Erromatar kanpamentu militarra. *Aranzadiana*, 143, 150.

Sagredo Garde, I. (2021). *Riezu-Rezumendia. Memoria arqueológica 2021*. Informe de la intervención arqueológica depositado en el Servicio de Patrimonio Cultural del Gobierno de Navarra.

